

VI PAULO'REN GOMUTAPENEZ

AITAREN AGURRA DA BETI AITA SANTUAREN ERIOTZEA ETA MUNDU GUZTIAN IZATEN DAU, ERAGIÑA, ORRELAN IZAN DA VI PAULO'RENA BE

Bai, dolumiñez dago mundua, batez be mundupo katolikuak.

Amabost urte Aita Santu'tzan egin ondoren, Erroma'ko bero aundiak orretara bultzatuta edo, uste aundirik ez genduala jakin genduan egun baten Aita Santuaren eriotzearen barria.

Dagonillaren seigarren eguna zan, Kristo'ren Antz-Aldatzearen eguna. Egun beretan antz-aldatu zen VI Paulo be. Betirako bizi barria jantzi eban, il-eziñen bizia.

MUNDUAREN AURREAN, LATERRI-ARTEAN, GIZON AUNDIEN AURREAN, AUNDI AGERTZEN ZAN VI PAULO ETA ORTIK SORTZEN ZAN MUNDUAREN AURERAPENEAN KRISTO'REN IRAKATSIK SARTZEKO BIDE BAT

Nik ez dakit Kristo'ren ordezkariarentzat egokia dan ain aundi izatea. Ebanjelioa txikien alde agertzen da eta umeen antzeko txikiak izateko eskatzen dausku.

Baiña gaurko Eleiz-Erakundean Aita Santua Gizandien artean gizandi agertzen da. Berak otseinen otsein dala esaten dau, baiña itxura baten inork ez leuke esango.

Bizitzan eta eriotzan, aundien artean aundi agertu da VI Paulo eta aunditasun orren barruan Eleizearen eta munduaren serbitzaille izan da. Ori ezin ukatu.

Aundia, munduko aundikien artean bake-bidea sortzeko.

Aundia, Afrika'n naiz Amerikan, naiz Asia'n, naiz *Europa zarrean bere* ikustaldiak egitera joan danean.

Aundia non nai izen ona ta ospea izan ditualako.

Aundia, urrutikuskiñean, irratietan, liburuetan, izparringietan.

Aundia ikustaldiak artzean, naiz ta gure artekoen batzuk minduta etorri euren samin-tasuna agertzeko ta bere babesa eskatzeko ara *joan ziranean*. Aunditasun ori olakoetan kaltegarri gertatzen zan.

ELEIZEAREN BARRUTIK BEGIRATU EZKERO, PAULO AITA SANTUA AUNDI AGERTZEN JAKU MUNDUKO KATOLIKUEN AURREAN ETA KRISTO'REN ARTALDEAN

Iru milla gotzain, bakoitza bere artaldearen buru ta arduradun eta artalde ta artzain guztien buru Aita Santua.

Mundu zabalean ainbeste eleiza, erakunde ta kristidau-talde eta guztietan dauka zerikusia aita Santuak.

Munduko eleizarik aundiena Erroma'n, eta axe Aita Santuarena, eta ondoan jauretze ederra.

Kristo'ren Ordeko, Erroma'ko Gotzain, Sartaldeko Patriarka...

Jaunagandik artua dau ardura aundi ori, baiña orrelan bete bearrekoa ete zan? Ez ete dago eginbear aundi ori beteteko itxura apalogoko erarik? Kristo'k gura dauan modukoa ete da erakundea ala beste batzuk ete dira Ebanjelio-bideak. «Zorioneakoak txiroak» esateko egoera ona ete da ori?

IRAKASLE AUNDIA IZAN DA PAULO AITA SANTUA ETA IRAKASLETZA ORRETAN BERE ABOTSA MUNDU GUZTIAN ENTZUTEN DA, BATZUNTZAT ITZALGARRI, BESTE BATZUNTZAT AZTERGARRI

Aita Santua uts-eziña dala esan eban Vaticano'ko lenengo Eleiz-Batzarrak, eta alan sinisten dogu.

Eta uts-ezin lez, Irakasle aundi lez agertu jaku Paulo Aita Santua.

Gai guztietan munduak jakin gura izan dau bere irakatsia, naizta gero azterpen zorrotza ta kritika gogorra egin.

Geuri be, ezin ukatu, bere irakatsiak beti ez jakuz atsegin izan beti ontzat eta egitzat artu ba'doguz be.

«Errien Aurrerapena» deritxon agiria txalogarri lez artu genduan esaterako, «Giza-Bizitza» deritxona, oster, geiago aztertu dabe eta erantzupen gogorragoa izan dau gure artean.

«Zure anaiak sendotu egizuz» Pedro'ri esan eutsan jaunak, zeregin aundia ipiñi eban aren gainean.

Eta, azkenez, aldakuntza aundiak egin ditu Eleizan VI Paulo'k. Aundiagoak egingo zituan al izan ba'eban. Beteko al dau urrengoak arek egin barik itzi dauana. Etorriko al jaku gaur bear dogun lako Aita Santu egokia!